



AURKEZPENA: EUSKAL HERRIA ESNEA

Gaur proiektu berria aurkezten dugu: Euskal Herria Esnea. Gu Sonia, Estitxu eta Idoia gara; Sonia eta biok baserritarrok, eta Estitxu komunikazio-arduraduna. Estitxuk hasiera-hasieratik projektuan lagundu digu, eta euskarazko publizitatean buru-belarri sartuta dabil, horregatik dago gaur hemen gurekin, eta horregatik gure esker ona adierazi nahi diogu.

Baserritarrek bizi dugun egoera latzari aurre egiteko tresna berri gisa aurkezten dugu Euskal Herria Esnea kooperatiba. Proiektu honetan egun aktiboan gauden esne-baserritarrok bakarrik hartuko dugu parte. Era berean, kooperatiba honek baserritarren arteko berdintasuna, eredu ekonomiko justuagoa eta ekologia ditu oinarri. Baserritar guztiak prezio bera jasotzen dute litroko esnearen truke, euren produkzioaren tamaina kontutan hartu gabe.

Argi eta garbi esan nahi dugu porrot egin duela herri honetan ezarri den Kaiku/Iparlat ereduak. Kaiku/Iparlat eredu indarrean egon den bitartean baserritarrek ikusi behar izan dugu:

Bat: Nola azken 20 urteetan esnea ekoizten zuten baserrien % 93 desagertu den. EHNE sindikatuaren datuen arabera, duela 20 urte zeuden 13.000 ustategietatik 1.000 besterik ez baitira geratzen. Horren arrazoi nagusia industriak ordaindutako prezio baxua da.

Bi: Nola 2006 urtean Auzitegi Gorenak Kaiku/Iparlat taldeari jarritako 550.000 euroko isuna berretsi zuen, gainontzeko esne-industriekin baserritarrei ordaindu beharreko prezioa legez kanpo adosteagatik.

Hiru: Nola Kaikuren jabetzaren %66, bi heren, Suizako Multinazional baten esku geratu den eta beste %14 bat euskal banketxeen esku.

Eta lau: Nola Kaiku/Iparlat-ek atzerriko inbertsio eta merkatuak dituen helburu, eta ez bertoko esnea, ezta bertoko merkaturia eta gure ekonomiaren egoera.

Horregatik argi eta garbi esaten dugu eredu horrek porrot egin duela. Eta Euskal Herriko baserriak ez gaude prest gure bizitza Suizako multinazional horren bulego batetan erabaki dezaten. Eredu berri bat posible dela sinesten dugu, baserriak oinarri dituen eredu berria: Euskal Herria Esnea.

Bide horretan lehenengo urratsa gure esne marka propioa kaleratzea izan da, dagoeneko saltokietan dagoen eta aurrean duzuen Euskal Herria Esnea. Produktu berri honen bidez, beste batzuek egindako bidetik, baserriak esnearen prozesu guztia kontrolatu eta zuzenean saltzea lortu nahi dugu; gu geu gara, baserriak, esnea jaisteaz gain, ontziratze eta merkaturatzeko behar den kudeaketa guztiaz arduratzen garenak.

Esneari dagokionez, Karrantza dugu Euskal Herriko esne-herri emankorrena, eta proiektu honen abiapuntua Karrantzan dago. Hala ere, Euskal Herri osoko esnea biltzea da gure helburua, eta horretarako lanean gaude. Herri honetako baserriak guztiak egora berean gaude, eta, momentuz, banatzeko dugun bakarra da MISERIA, DUINTASUNA, ELKARTASUNA eta EKIMENA ETORKIZUNA ALDATZEKO. Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa, Zuberoa, Behe-Nafarroa eta Lapurditik datorren esneak izango du tokia gurean; nahiz eta jakin badakigun gutxinaka-gutxinaka joan beharko dugula handitzen.

Horrez gain, ontziratatu eta saltzen dugun esne guztia Euskal Herrikoa dela bermatzen duten kontrol ofizialak egiten dizkigu Eusko Jaurlaritzak. Uste dugu berme hori duen UHT ESNE BAKARRA GARELA, gure esne guztia euskal baserrietakoa da. Orain arte egon diren proiektu enpresarialen gainetik, baserriak prezio duina ordaintzea izango dugu xede, eta, noski, kontsumitzaileek bertako esnea jatorri eta kalitate bermeekin gozatu ahal izatea.

Ontziratzeari dagokionez, hasiera batean, noski, Euskal Herrian ontziratze ahalegina egin genuen. Baina Euskal Herrian dauden ontziratze-zentro bakarrak Kaiku-Iparlat taldekoak dira, eta momentuz ez dute gurekin lan egitea onartu. Horregatik, egunero baserrietan esne-bilketa egin ostean, gure kamioiek Soriaraino joan behar dute esnea ontziratze, eta horrek garraioan diru-galera handia dakarkigu.

Hala ere, gure proiektua guztiz garatzeko ezinbestekoa da gure ontziratze-zentro propioa eraikitzea eta dirua Euskal Herrian geratzea. Horregatik, hemendik deialdia egin nahi diegu Euskal Herriko udaletxeei, baten batek gure UHT planta eta ontziratze zentroa bere herrian jartzeko interesa izango balu, gurekin harremanetan jar dadin. 15 lanpostu zuzen eta beste zeharkako 15 lanpostu sortuko direla aurreikusten dugu.

KAIKUREN SALAKETA

Gaurko egunak polita eta pozgarria izan behar zuen, Euskal Herria Esnea jendaurrean aurkezten dugulako. Baina, tamalez, albiste batek aurkezpen hau pixkat ilundu egin du. Duela hainbat aste Eusko Jaurlaritzaren jakinarazpena jaso genuen esanez espedientea ireki digutela gure esnearen etiketatzea euskara hutsez jartzearren. Salaketa Kaiku Taldeak jarri digu.

Kaikuk, batetik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zion bermatzeko gure esnea ontzian agertzen den lurraldekoa dela. Guk uste genuen ez zela beharrezkoa inolako ziurtagiririk, baserritarrak garen heinean gure hitza nahikoa dela esnea euskal baserrietatik datorrela bermatzeko. Baina, Kaikuren salaketari esker, Eusko Jaurlaritzak kontrolak egin dizkigu, orain gure hitza ez ezik paper ofiziala ere badugu non dioen gure esnea ontzian agertzen den lurraldetik datorrela Euskal baserrietako esnea dela alegia.

Bestetik, Kaikuk eskatzen zuen etiketatze-gaietako legea betetzeko. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak, esan bezala, espedientea zabaldu digu gure ontzia euskarazkoa eta elebakarra izateagatik. Isuna 30.000 €-raino irits daiteke. Paradoxikoa da, izan ere gure presidentek produktua kaleratu aurretik

erakutsi zion Eusko Jaurlaritzari, eta ez ziguten inolako arazorik jarri. Kaikuren salaketa izan da Eusko Jaurlaritza espedientea zabaltzera derrigortu duena.

Tamalgarría iruditzen zaigu euskaldun batek beste euskaldun bati euskaraz egitearren horrelako arazoak izatea. Guk konpromisoa daukagu bertako esnearekin eta bertako merkatuarekin, eta horren erakusle garbia da egin dugun hizkuntza-hautua. Euskal merkatua dugu helburu, eta gure kontsumitzaileak euskaldunak edo euskara maite dutenak dira. Uste dugu euskara herri honetan dugun altxor bat dela, zaindu eta normalizatu beharrekoa, eta berri pozgarria behar luke produktu bat normaltasun osoz euskara hutsez kaleratzea, are gehiago premia biziko ondasuna izanik.

Legeari dagokionez, Madriletik datorkigu Etiketatzeari Buruzko Lege Orokorra, eta lege horrek 18. artikuluan dio gaztelania derrigor erabili behar dela, baina salbuespen bat dagoela: autonomia erkidegoetako hizkuntza erabili daitekeela autonomia horretan ekoiztu eta saldutako produktu tradizionalen kasuan. Lege horren testuak interpretazio ezberdinak eduki ditzake, baina gure abokatuek egindako txosten juridikoaren arabera baldintzak betetzen ditugu. Hala ere, adierazi nahi dugu euskara hizkuntza modernoa dela, eta edozein produktu saltzeko balio duela, tradizionala izan edo ez. Argi daukagu legearen testu horrek ez baditu euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzen aldatzeko eskatu beharko dugula.

Produktu gehienak gaztelaniaz elebakarrak diren merkatuan, euskaldunentzat ulertezina litzateke euskara hutsez kaleratzea debekatzea. Guk hemendik diogu bukaeraraino heltzeko prest gaudela kontu honekin, betiere kontutan hartuta hemen baserrien bizirautea dagoela jokoan, eta kontuz ibili beharko dugula horrelako isunek erremediorik gabeko kalteak ekarri ahal dituztelako.